

Argazkilari baten memoriak

2014, Abuztuak 9

Egunabarrean iritsi gara estatubatuarren Gecar-eko aireportu militarra. Hegazkinak zeruko laino arrastoak zulatuz zebiltzan hara eta hona. Hainbat soldaduk bideratu gaituzte korridoreen eta ikur militardun seinaleen amaraun hartatik zehar. Azkenik, barren-barrenean, J.Lewis sargentua ikusi dugun arte, gure gidaria herrialdean sartzeko. Dominaz beteriko uniforme militarrekin agertu da hirurogei bat urteko eta zainez jositako gizon buru zuria.

Ezin dut esan ez naizenik batere harritu J. Lewis sargentuak Samat eta Bahtruis-eko frontea bezalako eremu gatazkatsutik sartzeari plan ona izango dela esan duenean hegazkinaren altzairuzko izardun atea irekitzerakoan. Onetsi egin behar ordea; estrategia eta sen falta ez da izango eskarmentodun ofizialaren erabakien funtsa, amerikarrek geografia arloan behintzat ezagutza gutxi ez baitute. Bekokia zimurtu eta tonu latzean, ia erasiatuz, errepikatu ditu betebeharreko argibideak, motorraren zarataren gainetik ahal zuen moduan ozenki esanez... edo aginduz: “Badakizue guk sartzen lagunduko dizuegula, hortik irtetzea zuen kontua da.”

Gizaldiaren porrot handiena, elkarrenganako giza ulertezintasunaren erakusgarriarik handiena da guda. Eta honelako egoerak baretzeko beharrezkoa da munduari erakustaraztea, iluntasunean egiten dena bertan geratzen baita. Hau da nire lana, eta ez da lehenengo egunean ikasten den zerbait. Akaso, hainbeste urte eta argazkiren ondoren ohitu al naiz ba gudara? Pentsatze hutsak izutzen nau.

Sargentuaren hitzetan harrotasuna zegoen; zimur eta zainez beteriko aurpegian ezin izan diot nazkamena eta nekea ez den beste ezer aurkitu.

2014, Abuztuak 11

Gobernuz kanpoko eremuan gudako jauntxoek ezartzen dute botere zaratatsua, isilpeko legea.

Bahtrais probintziako hiriburuan, Quineil-en, erabateko sarraskiak dirau orain dela bi aste hasi zen bonbardaketaren ondorioz. Ke eta metal ekaitza izan balitz bezala, ez dirudi trumoi hotsak amaierarik duenik. Baina hau ez da oinazearen alde ikusgarriena besterik; badira hilabeteak lurra euriak busti ez duela. Horrenbestez, elikagai eza eta egarria dira atsekabearen benetako harroinak.

Urte batzuk hutsik dagoen ostatu batean bilatu dut gaua non pasa. Denborarekin ahaztua —edo sahiestua— izan den eraikin zaharkitu batean. Dena den, nahiko barrualde txukuna du, gehiegi beharbada; mantel gorri-berdez (matxinatuen kolorez) hornitua, bitarte zabalekin altzairu artean, barnizatutako kaoba dotorez inguratutako ispilu eliptikoa dago korridore barrenean eta oheak badu gutxienero erosotasuna.

Goizean-goiz, hiria, itxurazko geldialdian egoten denean, lurraldeko jauntxoaren etxalekura gerturatu naiz bisitari ororen lez. Ez segurtasun, ez gaua pasatzeko sabai, ez dira debalde. Sarrera bi soldadu bizardunek babestutako eskalinata zuri bat igota zegoen, leherketek birrindutako balaustrada baten azpian. Gizon armatuei nire zereginak azaldu eta pixka bat egoteko eskatu didate... Gizabidez! Idealak albo batera utzita beraien bizikizunak kontatzen hasi dira eta zoro horiek! Batak familia atzean utzi eta idealengatik borrokara etortzea erabaki omen zuen gaztaroan. Gero, bere alabak urtebete zueneko argazkia erakutsi dit eta limoizko te batera ere gonbidatu naute.

Ez naiz batere fidatu itxurakeria horrekin. Nire hitz eta mugimenduak ahalik eta gehien neurtzera mugatu naiz itxaronaldian zehar. Han agertu da gero jauntxoa, bere bizar zuri,

buru soil eta leiar biribileko betaurrekoekin. Dirua eskura eman eta pauso azkarrean irten naiz.

Nola liteke umore eta familiadun bi pertsona haiek hiriko sarraski eta sufrimenduen oinarri izatea, aurrean familia bat aurkitzean bi aldiz ez pentsatu eta kolore gorri-berdea ezartzea? Beharbada itsuegia naiz zergatia ikusteko, baina historialari baten hitzetatik ikasi nuen ez dagoela munduan hain bandera handirik errugabeak hiltzearen lotsa estaltzeko. Izua, ezin esaneko beldurra, hori da kontua.

2014, Abuztuak 19

Eguzkiak gupidagabe berotu du airea; lautadak, gero eta lehorragoak, ez dira zimeldutako landare bakanez eta tximista formako arrailez osatutako lur multzoak besterik. Nire bizilekura bi kazetari eta aspaldiko adiskide europar etorri dira beraien Jeep-ean hemengo gatazka dokumentatzera, asteartean telefonotik ohartarazi zidaten bezala.

Quineil-i dagokionez, hautsitako harrizko bloke multzo bat da, literalki. Hiriaren ekialdeko aldea besterik ez dago zutik. Ondorioz, kaleetan oraindik ez da posible soldadua ez den beste inor aurkitzea, janaria eskuratzeko zailtasuna nabarmenduz gizartean, nekearen zein beldurraren menpe dagoena. Hala ere, ahaleginak egon dira ahal den moduan goseari aurre egiteko. Hala nola, ospitalean gizon armatuek oinarritzko janari sortak banatzen dituzte herritarren artean, errealitatean hutsaren hurrena baldin bada ere.

Quineil-eko familia eta zibilen portaera geroz eta gehiago ezagutzen ari naizen heinean, hauek matxinatuen alde jartzeko duten joeraz ohartzen ari naiz. Zergatik? Batik bat, lehendanik zuten pobrezia eta amaierarik ikuste ez zaiom gatazka honen eraginez. Hau da, jenderen oinazea hain da handia, non nahiago duten bakearen itxura duen edozer,

gudarekin jarraitzea baino. Egonkortasuna behar dute, ankerkeria, bidegabekeria eta basakeria harroin dituen egonkortasuna izanda ere.

Muin apal baten alboan, errepidea izatera heltzen ez den bidezidor baten barrenean, bada laku antzeko bat, ez oso handia eta, gaur egun, erdi hutsa, baina burua busti eta egarria asetzeko adinakoa dena. Honela, eguerdi aldean, Jeep beltza hartu eta bideetako hautsak astinduz hiritik pare bat kilometrora dagoen putzu horretara gerturatu naiz ur pixka baten bila. Bide ertzean zeuden bi zuhaitzen tartean zokoratu dut autoa inork ez ikusteko. Batenbatek lapurtu eta hemen galduta gelditzea besterik ez zait falta!

Bidezidorreko paisaiak bazuen gehiegizko patxadak berezkoa duen ixilpeko arrisku mesfidagarria. Nolanahi ere, bidea lasai egin dut, inor aurkitu gabe. Lurraldean horrelakorik ikustea arraroa izan arren, eguzkiari tinko eusten zioten zuhaitz multzo bat zegoen lakuaren inguruan. Zumarra oparo baten alboan eseri naiz, justu urak lurrarekin topo egiten zuen txokoan. Ereku hartatik, lakua eta zeru urdina begiesten uzten ez zuen hostaila berdexka besterik ez zen ikusten. A ze poztasuna putzu hartako hezetasunak nire eztarria busti eta nire gorputzeko bazterrak inguratu dituenen! Egingo zituen berrogei gradu inguru!

Aintziratik irten eta zumarra azpira nindoan arropak janztera, bat-batean, apenas hamar urte edukiko zituen ume bat ikusi dudanean bide zidorretik etortzen... esku artean fusil beltz batekin. Janzkeraren koloreak, ia bera baino handiagoa zen arma... dudarik ez zegoen: matxinatu bat zen.

Hasiera batean, ezin izan dut erreakzionatu, ez behintzat arrazionalki. Arriskuaren jabe, ahal nuen arinen ezkutatzera joan naiz, baina aldeetan lautada; handik korrika joanda haurrak zuen moduko arma automatikoarekin erraz asmatzeko modukoa, atzean ura, aurrean pausoz-pauso bidezidorretik umea. Seguraski ezer pentsatu gabe lautadatik korrikan alde egiten saiatzea izango litzateke zentzuzkoena, baina kanpotik indar

ikusezin bat eusten ariko balitzait bezala, guztiz mugitu ezinik geratu naiz, zein erabaki hartu jakin gabe.

Hura nitaz ohartu gabe zetorren pausoz-pauso, eta ni, bitartean, aurpegia izerdi tantetan zuen eskultura baten gisa. A zer zaila den zuhur jokatzea aurrean bera baino handiagoa den metrailadoradun ume bat aurkitzean! Eta ni ikusi eta beldurraren menpe erantzun go balu? Eta matxinatuen eremuan ezkutuan sartutako espioitzat hartuko banindu? Eta zer ni gatibu hartzea bururatuko balitzaio? Orduan barneratu dut hau egiazko bizi ala hileko egoera bat zela.

Azkenean, mugitzera nindoan... Jainkoaren izenean, haurra zuzen-zuzenean begira ari zitzaidanean!

-Ze... Zerren bila zabilta, gazte?- Galdetu diot ahal izan dudan ahots irmoenarekin.

Mesfidantzaz begiratu dit hasieran, arma pixka bat altxatuz, baina zuzenean apuntatu gabe. Amaitezina egin zaidan momentu txiki batean, bata besteari begira egon gara, hitz zipitzik egin gabe, eta mugimendu txikienarekin balaz josia bertan gera nintekeela argi neukala. Arraroa da heriotza gertu duzunean, benetako aukera bat bezala hartzen duzunean, hondoratzen zaren sentsazio deskribaezin hori. Ez dut esango zure bizi osoa aurretik igarotzen dela, ez baitzait gertatu, baina munduko ordulari guztietako orratza bat-batean geldituko balitz bezala, denbora gelditu egiten da. Ohartzerako laino grisaxkaz inguratuta aurkitzen zara, eta ongizate atsegin kimeriko batean murgiltzen zara, pixkanaka-pixkanaka. "Egiaz, ezerrek ere ez baitu axola" pentsatzera iritsi arte.

-Ez dirudizu hemengoa, ezta etsaia ere. -Esanez moztu du azkenean ixiltasuna haurrak- Gainera, esku hutsik zaude, armatu gabe. Ur pixka baten bila noa. Nahi al duzu zuk ere urik, jauna?

Egia zen; izan ere orduantxe ohartu nintzen ezkerreko eskuan plastikozko ontzi merke bat zekarrela zintzilika. Sinetsi ezinik, "Errespetuzkoa da behintzat morroskoa." hitzak

besterik ez zaizkit bururatu. Eta a ze ahots ezia, aingeruen ahoetako doinu fina bezalakoa, Wagner-en Tannhäuser-a oroitarazteko modukoa.

Lasaitu ederra hartuta, banekien konfiantza gehiegi hartu gabe zuhurtasunez urrun alde egitea zela egokiena, baina, agian oraindik erdi-ametsetan, egoerari fruituak ateratzea erabaki dut ahoan irrifar kokin batekin. Hain urrutira iritsi eta gero ez zegoen beste aukerarik.

-Ez, egia esan lanean ari naiz, gazte. Zuri galdera batzuk egitea gustatuko litzaidake. Nire herrialdeko prentsan egiten dut lan, eta zu bezalako norbaitek hemengo egoera bere hitzez kontatzea nahiko nuke; zure bizitzako istorioa, bizikizunak, iritzia... Urruti, munduaren beste puntan ere, zuk uste duzuna baino kezkatuago gaude hemen gertatzen ari denarekin.

-Benetan hitz egiten duzue gutaz?- Galdetu du ilusioz.

-Bai, hala da... prentsa kontsumitzen dutenentzat behintzat.- Zer esan behar nion ba, bestela?

-Nongoa zara ba izatez, jauna?

-Europakoa naiz, hemendik oso-oso urrun dagoen beste kontinente batekoa, itsasoan begientzat ikusezinak diren distantziak zeharkatu eta hala ere urrun geratzen den leku amaigabe bat. Hain urruti dago, non airez etorri behar izaten den, lainoen eta zeruaren urdintasunaren tartean. -Puntu honetan jadanik bere ahots eztituak gorpuzten zuen hitzen xalotasuna guztiz jabetu zen nitaz. Izan ere, beste edozeinen moduko mutiko arrunt bat zen berez, ezberdintasun soil batekin; hiltzeko makina bat zuela eskuineko eskuan.

-Ni ez naiz sekula hegazkin batean sartua, baina uste dut bat ikusi nuela orain dela urte bat inguru, Quineil-eko aireportura bidean.

-Ez pentsa ederra denik. Nire lehenengo aldian botaka egiten bukatu nuen! Aizu, eta nola bihurtu zinen matxinatu bat? Quineil-en jaiotakoa al zara?

-Bai, hiriaren kanpoaldeko auzo batekoa. Egun batean, suntsiketak hasi baino aste batzuk lehenago, nire gurasoek uniformedun gizon batekin bidali ninduten. Nitaz harro zeudela esan zidaten. -Eten bat egin zuen hemen.- Eta... Zeinen kontra borrokatzen duzue zuen herrialdean?

-Nola? Ez zaitut ulertu, mutiko.

-Noren kontra duzuen guda.

-Ez, ez... -eskuekin zeinu batzuekin zerbait adierazten saiatu naiz irribarre kaden batekin.- Orain dela ia ehun urte borrokatu genuen geure artean Europarrok. Hori bukatu zen. Gero ere izan ditugu gatazka sutsuak geure artean, baina gaur egun erlatiboki bakean bizi gara, hemengoarekin alderatuta bai behintzat.

Hala nola, santu bat izango banintz bezala begiratzen zidan liluratuta. Beroaren eraginez, izerdi tantak apurka jeisten ari ziren bere ile leunetik beherantz, txinatar erako begietatik pasatuz, peka ilun ñimiñoz betetako sudurrera. Nolabait, aurpegi bitxia zuen; samurra eta aldi berean basatia.

-Nolakoa da gerra gabeko herrialde bat?

Ezin izan dut jakin zer erantzun. Agian “begira, gauzak beste era batekoak izan daitezke” edo “Azken finean, denok gara jainkoaren seme” bezalako zerbaitetan pentsatu dut, baina ez dut haurra lekuz kanpo zeuden ergelkeriekin ilusionatu nahi izan. Ezin nuen ume hura horrela utzi. Poltsikoan billete sorta bat nuela gogoratu zait, pare bat eguneko oilasko errea lortzeko nahikoa. Ez, a ze arduragabekeria. Non amaituko zuen ba, diru horrek? Esku zikinetan, seguru.

-Aizak, nola deitzen haiz?

-David.

-Ongi duk, David. Azken egun hauetan ez ziaten jateko asko emango, ez duk hala? Laga ontzi eta arma horiek leku seguruan eta etorri hadi nire autora. Jateko ona merezi duk, aspaldiko partez, David.

Aurpegia piztu zitzaion errukigarriari. Bidezidorrean gora aurretik abiatu nintzen. Segituan, ordea, zirkinik egin gabe gelditu zela ohartu nintzen, lekuan trinko, aurpegi zalantziarekin.

-Zer gertatze da David, ez daukazu goserik?

-Bai... Baina, lagun batzuk... Hau da... Nire adiskide batzuk ere ez dute asko jan eta...

-Zenbat dira?

-Bi.

-Esan etortzeko. Baina baldintza batekin: Ez daitezela konturatu kanpamenduan falta zaretela.

Honela, autoaren kokapena azaldu diot, -badaezpada, koordenada zehatzegiak eman gabe, hori bai- eta adierazitako lekuan gelditu naiz zain. 15 bat minutu barru hirurak entzun nituen algaraka zuhaixka baten atzetik etortzen, oraingoan armarik gabe. Inor ez zeukatela atzetik segika bermatu eta beste 5 minutu ibili ginen autora iritsi arte.

David eta beste biak, James eta Mohamed, ahots xaloduna baino pixka bat garaiagoak, seguruenik zaharragoak, bakoitzari eman diodan plastikozko ontziko azkeneko arroz alea ere gogoz irentsi dute, hortzetako zirrikitu eta gorabehera guztiak erakutsiz irrifar egin duten bakoitzean. Lotsa galdu eta ia betiko lagun bat izan banintz bezala jardun dute nirekin txantxetan!

-Ez duzu jan behar? -Galdetu dit halako batean Davidek.

-Ez, ez. Jan zuk. Mutilok, begiratu kamerara eta egin irrifar!

Argazkian hirurak bata bestearen alboan agertzen dira irrifartsu, hortzak erakutsiz eta eskua altxata ontzi hutsa eusten, atzean Jeep beltza dutelarik eta lautada lehor amaitezinarekin paisaiaren barrenean.

Arratsaldeko argitasuna ostertzean ezkututzen hasi zenean, bide ezberdinak hartu genituen; nik Jeep beltza, haiek kanpamendura bideratzen zena. Baliteke egun osoan ezer ere jan ez izana, baina sekula ez naiz egun hontan bezain asebeta sentitu.

2018, Urtarrilak 6

Batzuk diote ongi formulatutako galdera beharrezkoagoa dela erantzun finko bat baino. Ikusi ditudanak beste aukerarik ez didate uzten. Gerrarekin lortzen den bakerik ba al dago? Ezezkoaren indarra, norberaren hitza entzuna ez izatea, ez al da ba, akaso, mendeku desioaren sorteria. Eta ez al dira ba, zuhaitz adar gazteak gure enbor beretik sortuko?

2015 eko urrian nazionalek Quineilen erasora jo zuten. Zuzen, zehatz, sistematikoki inguruko matxinatuen finkapena gau baten inguruan birrindu zuten. Ezintasun sentsazio gogorrena lehiotik fusil hotsak entzutean izan nuen, zurrun nire aulkian, hurrengo goizean zer geratu zen ikustera atera behar nuela pentsatzen.

Era honetara, irtenda nintzen hurrengo goizean. Mugimendu zipitzik ez zegoen eta hiriaren barnetik zetorren kamioi gurpilen ohiartzun ahula besterik ez zen entzuten kale istuetan. Urrutira polbora suntsiketen ke lausoa zen nagusi. Hainbat suntsiketen argazkiak egin eta gero, ospital nagusira abiatu nintzen egoera ikuskatzera. Medikiak, zaurituak eta oheak ziztu bizian zebiltzan hormigoizko eraikin handi horren ate eta korridoreetatik. Oheetan, benda ziztrin grisekin aurpegia, enborra eta hankak estalita zeuden gehienak. Gorputz-adarrak leherketetan galdutakoak ere baziren. Inguruetatik medikuak presaka nituen bitartean, zaurituen eta hauen familien garrasiak entzun ezin

izan banituen bezala gogoratzen dut, belarriak tapatuta edukiko banitu bezalako sentsazioa. Segituan laguntzera batu naiz, oheak batetik bestera eramaten etab.

Bihotza gelditu zitzaidan ordea, berebiziko uhertasunez bilduta, Daviden aurpegia ohe batean inguruan inor gabe ikusi nuenean. Aurpegia zauriz betea zuen, gainean harrapatutako harrien arrastoz, eta bista galduta, desitxuratuta. Bere garrasiak, negarrak, arnasteko zituen traba eta zailtasunak bere alboan entzun nituen. Hitz egiteko ahalmenik ez eduki arren, baten batekin egoteak lasaitu egin zuen. Medikuari galdetutakoan, bere onera etorriko zela esan zidan, oinarrizko organoak “ikutu gabe” zeuzkala.

David handik hiru egunera hil zen, gurasorik gabe, nire alboan.

Inork nabaritu ez balu bezala joan zen, beste errugabe bat bezala. Nire barnean, ideien gainetik dagoen zati txiki batean, bada haur harekin joan zen zati bat, hutsegite sentimendu bat. Germaniar pentsalari nabarmen batek esan zuen moduan, deabruaren inguruan denbora luzez ibiltzen denak, hau barneratzen amaitzen du azkenean. Orduan bi bide geratzen dira: Deabrua bera bihurtzea edo ahaztu ezinezko bizkar zorroaren karga jasatea.

Ia hiru urte beranduago, Quineil-eko hilerrian dagoen nekosta sendo baten alboko banku batean eserita hau idazten ari naizela, ez da igaro gau bat David-en aurpegiaren oroitzapenak zer pentsatu eman ez didanik.

David-ek, urtero lez, badu urteberri egunaz zorionduko duen norbait, bere hilobian lirio xuriak jarriko dizkion norbait.